

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresaren **oinarria** ez da produkzioa, **zerbitzuak** baizik, beraz, ekonomiaren hirugarren sektorean kokatzen gara. Horregatik ez dugu ekoizpen sailik, ezta honek ekartzen dituen gastuak (lehengaiak, makinak, biltegia...).

<u>Gastuen izenak</u>	<u>Ordaindu beharrekoa</u>
Kostu finkoak	900€ hilabetero
Animalien zaintza	300€ (janaria 60€ hilabetero)
Altzariak	1000€
Gailu elektronikoak	500€
Publizitatea	200€
Web-orrialdea eta sare-sozialak	150€ hilabetero

Enpresa guztiak bezala **gastu finko** batzuk izango ditugu, hauek alokairua, argia, ura, elektrizitatea eta gasa izango dira. Baita ere gure animalien janaria, baina hori beste atal batean egongo da. Kostu hauek beti ordaindu beharko ditugu, baina prezioa aldatu ahal da. Egin ahal dugun kalkuluekin, gutxi gorabehera, 900€ izango dira. Hasieran gehiago, baina denborarekin prezioak murrizten joango dira.

Langileen **soldata** kontuan izan beharko da ere. Gure artean banatuko dugu ateratzen dugun mozkina, hasieran ez dugulako izango behar kanpoko langileak kontratatzea. Baina gure soldata 700€ inguru egongo lirateke. Lehenengo hilabeteetan inbertsio handiak egin behar dira, beraz etekina txikiagoa izango da. Baina denbora joan ahala diru gehiago irabaziko genuke eta gure soldatak igoko lirateke.

Animaliak zaintzeko behar den guztia. Janaria, oheak, jangarriak, xaboiak, jostailuak, uhalak... Hauek 200€ inguru egongo da. Kontuan hartu behar dugu janari hilabetero erosi beharko dela, baina besteak ez dira erosi behar hain azkar. Animalien **adopzioa eta albaitariaren** prezioa ezagutu behar dugu ere, eta animaliek behar izango dituzten sendagaiak. Adopzioak 50€ inguru izaten dira, eta albaitari gehienak ez dira 30€tik igotzen.

Altzariak eta gailu elektronikoak beharko ditugu. Lehenengoak egoitza osoan beharko lirateke, mahaiak, aulkiak... Baian elektronika aldetik bakarrik izango da beharrezkoa enpresaren kontuak eramateko (kontabilitatea, sare-sozialak, web-orrialdea...) eta sarreran ere. Gastua 1500€ ingurukoa izango da.

Marketing saila oso garrantzitsua izango da gure enpresan, beraz **publizitatea** ere. Hau egiteko internet, irratia eta kalea erabiliko dugu. Interneten **web-orrialdea eta sare-sozialak** izango ditugu, honen gastua 150€ urtero izango da. Adineko pertsonak asko entzuten dute irratia, beraz aukerarik onena da publikitatea egiteko. Kanean kartelak ipiniko ditugu ere eta propaganda paperak banatuko ditugu. **Irratia eta propagandaren** kostua 200€ inguru izango da. Etorkizunean publikitatea **telebista** lokalean egin nahi dugu.

Eskaintzen dugun zerbitzu bat **txangoak** dira. Hauen prezioa oso aldakorra denez ezin da zehaztu, baina zerbaitetan beharrezkoa izango da autobus bat alokatzea.

Encarga tus folletos o posters

Tipo de trabajo	Díptico	Papel: Brillo	
Formato	A3 abierto	Todos se imprimen en brillo	
Gramaje	90	Cantidad	500
Precio		Calcular	
110.00 €			

IVA NO INCLUIDO
PORTES EN PENÍNSULA INCLUIDOS

Este es lo que necesito, podemos continuar